

2015EKO HAUTESKUNDEAK: UDALETARAKOAK, AUTONOMIA ERKIDEGOETARAKOAK ETA OROKORRAK

*Idazki honetan, **Europa Laicak** zenbait iradokizun luzatzen dizkie 2015ean Estatu osoan egingo diren hauteskundeetan parte hartuko duten alderdi politikoei, hauteskunde-koalizioei eta ahutesle taldeei.*

ESTATU LAIKORANTZ HAUTESKUNDE-KONPROMISOA

30 neurri orokor eta 14 neurri udaletarako

1

Proposatzen diren neurrien ardatz nagusiek honako helburuak lortu nahi dituzte:

- Edozein erlijio edo ideologia partikularri buruzko Estatuaren benetako independentzia bermatzea, administrazio publikoen ideologia-neutraltasuna ziurtatze aldera.
- Izaera pribatuko edozein erakundeekiko, erlijioso izan edo ez, harreman ekonomiko eta fiskaletan era guztietako bereizkuntza edo pribilegioak errotik kentzea, Legearen aurreko eskubide-berdintasunaren printzipio demokratikoa eta espazio publiko eta pribatuen arteko bereizkuntza ziurtatzeko xedez.
- Hezkuntza laikoa bermatzea, hiritartasun-proiektu erkide baten barruan kokatzen den eskubide orokor, berdin eta integratzailea baita.

Horretarako honako hauek proposatzen ditugu

- Zenbait legeren aldaketak, 1978ko Konstituzioarena barne.
- Egoitza Santuarekiko 1979ko Akordioak deuseztatzea
- Deusezte Estatuak eliza katolikoari edo beste edozein erlijiori ematen dion finantzaketa, zerga-salbuespenak barne.
- Erlijio konfesionala hezkuntza-sistematik kanpo ateratzea, eta berezko ideario duten irakaskuntza-zentroen finantzaketa publikoa kentzea.

ESTATU LAIKORANTZ:HAUTESKUNDE- KONPROMISOA

... Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen; askatasun eta berdintasun xede hori galarazten edo haiek osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzea...(Indarrean dagoen 1978ko Espainiako Konstituziotik)

Datorren 2015eko maiatzeko hauteskundeen aurretik, **Europa Laicak** eremu orokorreko, autonomia-erkidego zein udal mailako administrazio publikoen eskuduntzei dagozkien zenbait ideia, xede eta eskakizun iradokitzen ditu, honako asmo honekin: **estatu laiko baten eraikuntzaren** helburua partekatzen duten alderdi politiko, koalizio zein hautesle-taldeek kontuan har ditzaten, eta hortaz, beren hautes-programetan sar ditzaten, edo neurri horiei atxiki dakien, eta behin hauteskundeak buruturik, bai hauetsiek eta bai beren talde politikoei **hartutako konpromisoa** betetzen saia daitezen.

30 NEURRI ETA PROPOSAMEN IZAERA OROKORREKOAK **LEGEINTZAKO NEURRIAK**

Estatua benetan burujabea izan dadin edozein erlijio-konfesioarekiko

1-Prozesu konstituziogile baterako edota oraingo konstituzioaren aldaketa partzialerako proposamenak:

2

*Honako testu hau proposatzen dugu oraingo 1978ko Konstituzioaren 16 artikulua ordezkatzeko.

16.1. Estatua laikoa da. Ezein sineste, ideologia edo erlijio partikularrik ez du izaera estatalik izango.

16.2. Pertsona guztien pentsaera, kontzientzia, erlijio eta beste sinesteen askatasuna bermatzen da; agertzeko eta antolatze orduan ez dute izango Konstituzioan eta legeetan ezarritako printzipioak betetzeko behar diren mugapenak baizik.

16.3. Inor ez da behartua izango bere ideologia, sineste edo erlijioei buruzko deklaraziorik egitera.

*Oraingo 1978ko Konstituzioaren 27 artikulua, honako printzipio hauek oso argi finka daitezen moduko idazketa proposatzen da.

Hezkuntzarako eskubide unibertsal eta berdina bermatze aldera, hezkuntza-sistemak laikoa izan behar du; hortaz, erlijioa, konfesio-eratan, ez da ez curriculumaren ez eskola-esparruaren parte izango. Horrela izan behar du hezkuntza-erkidego osoaren eskubideak errespatzeko, inolako bereizkuntza ez pribilegiorik gabe, eskolakideen artean, ideia edo sinesteetan oinarrituriko bereizketak saihestearren. Inola ere ez da diruz lagunduko ideario propioa, erlijioan oinarritua edo beste ideogiakoa, duen hezkuntza zentrorik. Estatuaren lehentasuna Eskola Publikoa da.

2-Denuntziatzea eta Deuseztatzea Estatu espainolaren eta Egoitza Santuaren arteko 1953ko Konkordatua eta 1976 zein 1979ko Konkordatu-akordioak. Orobat, beste erlijio-konfesiorekin sinatu diren gainerako akordioak.

3-Derogatzea indarrean dagoen “1980ko erlijio-askatasunaren legea” eta “**Konziientzia-askatasunaren legea**” prestatzea zertarako eta, pentsamendu, kontzientzia eta uste sendoen izatearen eta praktikaren askatasuna babesteko eta bermatzeko.

“Ildo honetan, **Europa Laicak**, testu artikulaturako proposamen bat eskaintzen du. Testu hau, parlamentu-ordezkapena zuten talde politikoei aurkeztu zitzaizen 2009ko martxoan. (Testu osoa irakurgai dago gure webgunean: www.laicismo.org)

4-Era berean, ezabatzea “49/2002 Mezenasgo Legetik” eta estatu, erkidego edo udal mailako beste hainbat lege, arau eta odenantzetatik eliza katolikoaren zerga-pribilegio eskergak, eta gauza bera beste edozein erlijiori, edo horien guztien erakunde, elkarte edo enpresei dagokienez, irabazi-asmorik gabeko erakundeekin parekatzea esan nahi duelako. Orobat ezabatzea estatu, erkidego edo udal mailan dauden guztizko edo zatizko zerga-salbuespenak (Sozietateak, Ondarea, Ekintza Juridikoak, OHZ, Eraikuntzen gaineko Zerga, JEZ, Ondorengotzak eta Ondare-Eskualdatzeak arautzen dituzten legeak).

5- 2015eko uztailean, 2015eko ekainean onartutako Hipoteka Lege berriaren ondorioz, eguneratutako testua

Eskatzen dugu behin Hipoteka Legea aldatu denez gero eta jada Eliza katolikoak ez du zuzenbide publikoko korporazio-begirunerik|iritzirik, bide legegileagatik Egoerak|Estatuak egintza deusez bezala deklaratu behar duela Eliza katolikoak |lekuari aipaturiko prozeduragatik itzuli. Hartarako 1946tiko katolikoak zerrenda erregistratutako larrekoak eta hiri ezaugarri|jabetza guztiak, haien bere aurreko erregistroarenegoerari bat eta Elizak ez-matrikulatutako guztiko balantzea egin behar ditu, aurrez, 2015eko ekainera arte.

6- Bai elizak eta erlijiozko konfesio eta erkidegoak, eta baita izaera ez erlijiosoko usteen inguruan eraturiko erakunde filosofiko edo ideologikoak, eta haien federazioak ere, zuzenbide erkidearen mendeko elkarrekin direnez, nortasun juridikoa izango dute, 1/2002ko martxoaren 22ko Lege Organikoaren, elkartzeko eskubidea arautzen duenaren aginduen arabera eratu ondoren, gaurko egunean lege hartan jasotako inolako salbuespenik gabe,

7-Derogatzea, oraingo Kode Penaleko 522-525 artikulua, delitu gisa tipifikatzen baitute sentimentu erlijiosoei, beren ekintza edo zemonietan, egindako ustezko iraina, hala ahozkoa nola idatzizkoa.

8- Deuseztu egingo dira izaera publikoko entitate direnez “*Obra Pía de los Santos Lugares*” eta “*Obra Pía de los establecimientos en Italia*” direlakoak. Haien ondarea, Estatu espainolaren jabetzakoa bilakatuko da, herrialde subirano baten aldetik gatazkatsuak diren ondasunak izan ezik. Hori gertatuz gero, nazioarteko arauen barruan haien titulartasuna negoziatu beharko da.

GAI SINBOLIKOEI BURUZKO NEURRIAK

Administrazio publikoen neutraltasun ideologikoa bermatzea

9- Ezein agintari publikok ezingo du halakotzat parte hartu izaera konfesionaleko jardueretan.

10- Era guztietako erlijio-sinboloak kendu egingo dira ekintza ofizialetatik, eta orobat titulartasun publikoko toki eta eraikinetatik; gauza bera egingo da izaera publikoa duten guztietan, eragile pribatuen kudeaketakoak, edota zuzenbide pribatukoak izan arren.

11- Ezabatu egingo dira edozein irudi, deitura, santu edo ikur erlijiosori egiten zaizkien ohore zibil edo omenaldi publikoak (kondekorazioak, botuak edo izendapen zibilak). Ildo berean, ez da loturarik ezarriko botere publikoen (pertsonek zein erakundeek) eta erlijio-izaerako erritu edo irudien artean. Baliorik gabe geldituko dira orain arte egindako horrelako ohore eta izendapenak.

12- Era berean, erlijio-zeremonien ospakizunak guztiz baztertuko dira Estatuak, edozein mailatan antolatzen dituen ekitaldi ofizialetan, hala nola, jabetzeko eginbideetan, hondamendiengatik hileta-ospakizunetan, merezimenduen errekonozimenduetan, ohore-egiteetan eta abar.

13- Inolako agerpenik ez egitea ekitaldi erlijiosoetan Estatuako indar armatu edo segurtasun indarren aldetik, ez eta Estatuaren ikur edo himnoen aldetik.

14- Konstituzioan ezarritako ez-konfesionaltasunari egokituko zaizkio administrazio publikoen, ente publikoen, armadaren, ordena-indarren eta unibertsitateen ohore eta protokolo erregelamenduak.

15- Kaperak kendu egingo dira administrazio zentral nahiz periferikoaren mendeko edozein toki publikotik, eskolako edo unibertsitateko, osasun edo gizarte zerbitzuetako, espetxeetako, militarren edo segurtasun-indarren kuartel, enbaxada, kontsulatu edo beste edozein eraikinetako izan.

16- Ezabatu egingo da kapilau funtzionario katolikoek figura, eta balego, antzeko beste edozein erlijio-ordezkariera ere, armada, osasun-sistema eta espetxeetatik. Orobat ezabatuko da Espainiako Armadako Artzapezpikutza

*(Espetxe edo ospitale batean dagoen edozein pertsonak, bere egoerarengatik kultuzentro batera joatea ezinezkoa badaio eta erlijio-asistentzia eskatzen badu, arreta jasotzeko eskubidea du, funtzionario kapilau horien beharrik gabe)

17- Erlijio-izaerako errituak edo kultuzko saioak kentzea telebistatik, irratitik, eta titulartasun publikoko beste edozein hedabidetatik.

ZERGA SISTEMARAKO ETA EKONOMIARAKO NEURRIAK

Inolako pribilegiorik ez bereizketarik izaera pribatuko ezein erakunderentzat, erlijio-izaerakoak izan edo ez.

18- Estatuak ez du finantzatuko, ez zuzenean, ez zeharka, erlijio-konfesorik, eta ez du ondare-ekarpenik egingo haien jarduerak garatzeko.

Era berean, **PFEZeko laukitxoaren bidezko finantzaketa ezabatuko da** . PFEZaren bidezko oraingo finantzaketa indarrean dirauen bitartean, Estatuak ez ditu ordainduko konturako kopuruak aldiro, eta berak aurkeztuko dizkio Parlamentuari finantzaketa horretako datuak.

Ildo honetan, aurreko 4. puntuan zehazten diren zergen salbuespen eta pribilegioak ezabatuko direla kontuan hartuko da.

Eliza katolikoak Diputatuen Kongresuari aurkeztu berharko dio 1979z geroztiko jarduera ekonomikoaren oroitza-txostena, jarduera higikor zein higiezina, luxuzko ondarea, merkataritza-ustiaketak, enpresaritza-jarduerak etab. zehaztuz.

19- Estatu zentralak, autonomia erkidegoek eta udalek, era koordinatuan eginbeharrekoa dute eliza katolikoaren eta beste konfesioen esku dagoen **Historia eta Arte Ondarea** modu egokian mantentzea, eta urteroko erregistroa gauzatu dadin zaintzea, partikularrei edo merkataritza erakundeei eskualda daitezen saihesteko, besteak beste. Urteroko katalogatze-kanpainak, 1986 ezker, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta autonomia erkidegoen arteko hitzarmen baten bidez finantzatzen dira.

20- Ondasunen desamortizazioa. Estatuak eliza katolikoaren ondarea arian-arian desamortizatzeko, eta erabilera publikoan jartzeko bideak bilatu behar ditu, interes orokorrak horrela eskatzen duenean eta/edo Estatuak parte hartzen duenean ondasun haien mantentze- eta zaharberritze- lanetan, horretara behartuta baitago aldebiko Akordioengatik, eta indarrean dagoen Ondare Legearen kariaz.

LEGEAREN AURREKO BERDINTASUNA

Eskubide-berdintasunaren printzipio demokratikoa, eta esparru publiko eta pribatuaren banaketa.

21- Izaera erlijiosoko ezein konfesio edo erakunderik ez da parekatuko zuzenbide publikoko batekin, zuzenbide pribatuaren pean egongo baitira haiek, aurreko 6. puntuan ezarri bezala.

22- Botere publikoen egitekoa da pertsona bat erlijio-konfesio jakin bateko partaide izatea edo ez, pertsona horren borondate hutsaren mende egon dadin bermatzea, eta erlijio batetik irteteko betebeharrak bakar, eskabide formal hutsa izatea. *(Edozein erlijio-konfesioan apostasia eskubidea egikaritzeko berme juridikoak)

23- Era berean, Haurraren Eskubideen Deklarazioaren eta beste nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoari jarraiki, Estatu espainolak bermatuko du ezen erlijio-erakundeek erraztasun guztiak eman ditzan mutiko eta neskestoei adierazten badute ez

daudela ados beren gurasoek, beraien baimenik gabe, erakunde horietan atxiki izanarekin, bertatik izena kentzeko, bai bataioen kasuan, eta baita adingabeek atxikitzeke beste antzeko errituen kasuan ere.

Ildo horretan, adingabeen arretarako eta zaintzarako zentru publiko edo kudeaketa pribatukoetan, ahaleginak egingo dira ez daitezen egon erlijio edo beste ideologia partikularreko erakundeen esku, eta daudelarik, kontzientzia-askatasuna zorrotz bete dadin bermatuko da.

24 Hilerrak zibilak izango dira, eta hildakoen familiartekoez egoki deritzen zeremoniak ospatu ahal izan ditzaten zainduko da. Horretarako toki publikoetan ez da erlijio edo ideologia partikular bat errepresentatzen duen ezein ikur, ikono edo ezaugarririk izango, hildakoaren familiartekoez zenduaren hilobian ezartzea erabakitzen dituztenak salbu. Udalen egitekoa izango da, ahal delarik, eskatzen duten eraturiko erlijio minoritarioentzako espazio bereziak eskaintzea.

*Gehiago zehazten da Udal mailako proposamenetan, 7.atalean.

25- Osasun-sistema osoan bermaturik egongo da borondatezko haurdunaldi-etetearen atentzioa, eta orobat heriotza duinarena eta bizitza-testamentuko erabakien errespetua.

HEZKUNTZA

Hezkuntza, eskubide orokor, berdintzaile eta integratzailea, hiritartasunerako proiektu erkide batean

26-Berezko dituen helburuak betetzearren, hezkuntzarako eskubide orokorra bermatze aldera, Eskolak honela hezi behar du: dogmarik gabe, ezagutza zientifiko eta unibertsalak irakasten, balio gizatiar eta hiritarrak lantzen, giza eskubideak errespetatzen, duintasun eta eskubideen berdintasunean oinarriturik, aniztasuna eta diferentziak onartzen, erkideak diren printzipio etiko eta demokratikoak gauzatzen. Hortaz, ezinbestekoa du laikotasuna.

27-Horretaz, **erlijioa, konfesio-eretan, curriculumetik eta eskola esparrutik kanpo** geldituko da, hezkuntza-komunitate osoaren errespetatze aldera, inolako bereizketa ez pribilegiarik onartu gabe, ideia edo sinesteetan oinarrituriko bereizketak erabat saihestuz.

28- Inolaz ere ez da diruz lagunduko ideario propioa duen hezkuntza zentrorik, idea horiek erlijiosoak edo beste izaera ideologiko partikularrekoak izan. Orobat, ez dira diruz lagunduko oraingo 1978ko Konstituzioaren 14. artikulua urratzen dutenak. Ildo honetan, arian-arian kontzertu-itunak ezabatuz joango dira.

29- Eskola den gune publiko eta erkidearen neutraltasuna errespetatze aldera, era guztietako erlijio-ikurrak, eta ekintza erlijioso edo proselitismoa bertatik aldentzeko dira.

30- Unibertsitatea laikoa izango da. Unibertsitate publikotik kanpo geldituko dira erlijioarekiko lotura guztiak, eta baita zuzenbide kanonikoaren ikasketa espezifikoak, eta erlijio-irakasgaien eskaintza edozein unibertsitate-ikasketetatik ere..

14 Proposamen orokorrak eta zehatzak udal politika EZ konfesional baterako

UDALETAN, BORONDATE POLITIKOA IZANEZ GERO, ASKO DAGO EGITEKO ESTATU LAIKOAREN ALDE

Neurri hauen xedea da tokiko botere publikoen eta erlijio-konfesioen arteko banaketa finkatzea, halako moduan non ezartzen baita instituzio politikoaren zilegitasun hertsiki sekularra, helburu erlijioso eta zibilaren arteko nahasketarako tarterik utzi gabe. Xedea da orobat estatuaren (udalaren) neutraltasuna edo ez-konfesionaltasuna bi zentzutan ezartzea: A- Botere publikoen konpromisoa ezen ez dutela eskuhartzerik izango hertsiki erlijiosoak diren gaietan, ahalik eta askatasunik handiena utziz alor horietan, zeinetan ordena publikoak eta legeak baitira mugapen bakarra. B- Berdintasuna ezartzea, ideologia, erlijio, edo horien ezaren kariaz inolako bereizkeriarik egon ez dadin.

1-Era guztietako erlijio-ikurrak desgertaraztea Administrazioen mendeko diren ekitaldi ofizialetan eta titulartasun publikoko guneetan. Administrazioek ez dute sustatuko inolako erlijiozko erritu edo ospakizunik.

2-Ekitaldi publiko ofizialak hertsiki zibilak izango dira, eta ez dute erlijio-kutsurik izango. Agintari publikoek edo funtzionarioek ez dute gisa horretan parte hartuko erlijio-izaerako ekitaldietan. Udal korporazioko kideek eta udal administraziozko zerbitzutan ari diren langileek, bere jardunean dihardutela ez dute persona edo irudi erlijiosoen aurrean mendetasun edo benerazio keinurik (belaunikatzea, eratzunei muin egitea) egingo. Udaletako eta berauen erakunde publikoetako ohore- eta protokolo-erregelamenduak, indarrean dagoen Konstituzioaren 16.3 artikulua ezartzen duen "estatuaren ez-konfesionaltasunari" egokituko zaizkio. Edozein erlijio-konfesiotako ordezkari erlijiosoak ez dira gonbidatuak izango ekitaldi zibiletara, eta ez dira agintari publikotzat hartuko.

3-Ezabaturik geratzen dira, eta atzeraeraginarekin, adbokazioei, santuei, irudiei edo erlijioari loturiko beste ikurrei egindako ohore edo botu publikoak, hots, dominak ematea, alkate betiereko izendatzea, eta antzekoak. Udalak eta korporazioak ez diote beren burua gomendatuko santu, irudi edo erlijio-errituei.

4-Administrazio lokalaren eta haren erakunde autonomoaren mendeko eraikin eta instalazio guztiak, era guztietako erlijio-ikurrez garbi egongo dira, administrazio publikoaren neutraltasun eta berezitasun printzipioak betetezearren. Horren kariaz, edozein lokal edo instalaziotan egon daitezkeen edozein erlijio-ikur erretiratu egingo da, eta alkategoak ondoren dagokion zertarako ezarriko dio: udal dependentzietan erregistratzea eta gordetzea, edo haietan interesaturik egon daitezkeen erlijio-erakundeei dohaintza egitea.

5- Ez da doan emango, ez erraztuko, lur publikorik ez lokalik, eta ez da finantzaketa publikorik ez salbuespenik udal zergetan emango, azpiegiturak instalatzeko edo ekitaldiak antolatzeko ezein erlijio-konfesiori. Orobat, erlijio-konfesioek, beren ekintzetatik ondorioztatzen diren udal zerga guztiak, Ondasun Higiezinena (OHZ) barne, ekintza horiek merkataritzakoak edo izaera erlijiosokoak izan.

Udalek zentsu publiko bat egingo dute eliza katolikoaren edo beste edozein konfesiorenak izaki, OHZ ordaintzetik salbuetsiak diren jabetza guztiekin, kulturako guneak izan edo beste merkataritza-edo gizarte-jardueretako erabili. Hala egokitzen bada, eliza katolikoak immatrikulazio-sistemaren bidez bereganatutako ondasun landatar eta hiritar guztien zentsua prestatuko dute. OHZ ordaintzetik salbuetsita leudekeen beste erakunde publiko zein pribaturen zentsua ere egingo dute.

6- Udalak erraztasunak emango ditu zeremonia zibilak (harrerak, ezkontzak eta hiletak) oztoporik gabe ospatu ahal izan daitezen, hiritarrei erraztasunak ematen, eta ahal den neurrian azpiegitura egokiak eskuratzen.

7- Hilerritako publikoetan, zibilak izango baitira, eta beilatoki, publiko zein kudeaketa pribatuekoetan, ziurtatuko da hildakoen familiarterako guztiek, erlijio edo sinesteengatiko inolako bereizketarik onartu gabe, egoki deritzen zeremonia guztiak ospa ditzaten. Gune publiko horien buru ezingo da ipini ezein erlijio edo ideologia partikularren ikur, ikono, edo bestalako ezaugarriak, salbu eta, hildakoen familiarterako zeremonia bitartean agerrararazi nahi dituztenak, eta hildakoaren hilobian ezarri gura dituztenak. Orobat udalak, ahal den neurrian ahalegindu behar dira erakunde erlijioso minoritarioen lurperaketarako toki bereziak eskuratzen, hala eskatuz gero.

8- Izaera zibileko erreferentzia eta ospakizunak sartuko dira egutegi ofizialean, gune publikoetan eta udal kale-izendegietan, eta orobat, data finkoak eta deitura neutroak Udaleko Eskola Kontseiluaren bidez izendatuak, eskoletako oporrentzako.

9- Herri eta hirietako festak, hiritar guztiak elkartzen dituzten gertakizunen inguruan ospatuko dira, eta ez, sineste jakin batzuk dauzkaten hiritarretako batzuenen inguruan. Garrantzi berezia emango zaie horretarako udalak ordezkatzeko duen tokiko gizartearen historia, kultura edo balio zibikoekin zerikusia izan duten gertakizun edo bizilagunei.

10-Udala, hauteskunde-garaietan, hautesleku edo lokal ez konfesionalak, eta hortaz, erlijio-ikurrez garbiak, botua emata den jarduketara demokratikorako.

11-Udalak, "Bizitza-testamentuen Udal Erregistroa", dagokion erregelamenduz hornitua, irekiko du, bertan hiritarrek, nahi izanez gero, norberaren bizitzako azken zatia buruzko borondatea erregistra dezaten, legeek ezarritako ondorio juridikoekin, osasun-administrazioarekin lankidetzan aritzeko

12-Udalak kontzientzia eta sinesteen askatasuna sustatuko du, eta askatasun hori egikaritzeko eskubide guztiak errespetatu daitezkeen bermatuko du. Horretarako, **Kontzientzia-askatasunaren babeserako Bulegoa** sortu ahal izango du, hiritarren kezu eta iradokizunak jasotzeko eta eginbideratzeko. Hala ere, hiritarrek, beren erlijio-sinesteetan babesturik, ezingo dute, persona edo talde gisa, hiritar guztientzako arau orokorrak zalantzan jarri, gune publikoetan bederen. Era berean, udalak informazio-kanpainak sustatuko ditu, hiritarrei azaltzeko zer esan nahi duten Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak, kontzientzia-askatasunak, eta konstituzioaren printzipio den "**Ezein erlijio-konfesiok ez du estatu-izaerarik izango**" esaldiak.

13-**Laikotasuna eta Eskola Publikoa**: Botere publikoek begiratu dute laikotasuna egiazkoa izan dadin ibilbide ofizialetan ematen diren irakasgaietan, hala

Titulartasun publikoko ikastetxeetan nola funts publikoekin ordaindutako ikastetxe pribatueta. Horren xedea da hezkuntza-helburuetan sar ez daitezkeen erlijiozko, filosofiako edo ideologiako uste partikularrak. Ondorioz, erlijio-ikurrak kendu egingo dira, eta galarazi egingo da erlijio-ekitaldietan parte hartzea edo ospatzea.

14-**Mozioak**. Udalek, beren eskuduntzetatik at dauden gaietan mozioak eta ebazpenak sustatuko ditu Estatuari eskatzeko behar diren legegintza-neurriak har ditzan Estatu laikoa ezartze aldera, eta bai eliza katolikoak eta baita beste erlijio-konfesiok ere gozatzeko dituzten probilegio guztiak –neurri eta proposamenen dokumentu honetan biltzen diren bezala- ezabatze aldera. Beren eskuduntzen barruan dagoenez, **udal laikotasunerako** ordenantza edo erregelamenduak egin ahal izango dituzte.

*** <http://laicismo.org//detalle.php?pk=37689> loturan ikus daiteke Udala Laikotasunerako Ordenantza edo erregelamendu baterako eredu izan daitekeen testu bat, indarrean dagoen legeriaren arabera